

FAZA

NEGOZIO IDEIAREN AZALPENA

AZALPENA

Gure ideia GPSa duten mikrotxip batzuk dira, galdutako gauzak erraz aurkitzeko edo objektu garrantzitsuak kontrolean edukitzeko. Haren erabilera horrela izango litateke: lehenengo mikrotxipa (pegatina, osagarri etab. formatuan) galdu nahi ez duzun objektuan jarri. Gero, mugikorrean instalatutako aplikazio batek pegatinean dagoen QR-kodea irakurriko du, modu honetan objektu hori denbora guztian kontrolean izango duzu aplikazioan dagoen mapa bati esker.

Munduan zehar ez dago gure GPS-a bezalako produkturik eta horrek berezitasuna dakarkio. Gainera jendeak egunero gauzak galten ditu; beraz, merkatuan bere beharra egongo litzateke. Bestalde, gure produktua beste produktuetatik desberdintzen duena, produktuaren erabilgarritasuna da batez ere. Erabiltzeko erraza da eta ez da informatikari edo teknologiari buruzko ezaguera handia eduki behar. Edozein objektu galtzea eta zure mugikorrak edo ordenagailuaz baliatuta, nahi duzun momentuan aurkitzea pribilegio ikaragarria da.

Egia da, produktu honen prezioa ez litzakela oso merkea izango; azkenean, nanoteknologiarekin erlazionatutako gailu honek pieza berezi asko behar ditu. Horri gehitu behar diogu produktu hau diseñatzeko eta programatzeko informatikan eta programazioan adituak direnen beharra izango genukeela. Hori dela eta gure asmoa da gailu etrektroniko zaharren piezak birziklatzea mikrotxiparen oinarritzko estruktura eraikitzeke eta horrela pieza berriak erostearen gastu hori gutxitzea.

Laburbilduz, uste dugu ideia ona dela jendearen eguneroko bizitza errazten duelako. Gainera, erabiltzen erraza da.
